Justizia Administrazioko zuzendariaren ebazpena, zeinaren bidez zuzentzen baita 2026ko urriaren 14ko Ebazpena. Ebazpen horren bidez, Donostiako barruti judizialean Justizia Administrazioko kidego orokorretako funtzionarioak Bulego Judizialeko lanpostu berrietara, udalerrietako Justizia Bulegoetara eta horien elkartzeetara eta Erregistro Zibileko Bulego Orokorrera egokitzeko prozesuaren barruan borondatez berretsi diren karrerako funtzionarioen behin betiko zerrenda onartu zen.

Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez, Eibarko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Barakaldoko barruti judizialetako funtzionarioak lanpostuetara atxikitzeko egokitze-prozesuaren irizpideak eta garapena onartu ziren.

Ebazpen horren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2026ko urriaren 7ko Ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez, Donostiako barruti judizialean behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioak borondatez berresteko proposamena egin zen, egokitze-prozesuaren esparruan.

Ebazpen horretan hiru egun balioduneko epea eman zen, eragindako funtzionarioek borondatezko berrespen-proposamenarekin ados zeuden edo ez adieraz zezaten.

Epe hori amaituta, Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez, borondatezko berrespenarekin ados zeudela adierazi zuten funtzionarioen behin betiko zerrenda onartu zen, bai eta prozesuan ez parte hartzea edo beren burua ez berrestea erabaki zutenena ere.

Zigor-arloko eremuari dagokion zerrendan akats bat antzeman denez, aipatutako ebazpena zuzendu behar da.

Azaldutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko urriaren 14ko Ebazpena zuzentzea, Donostiako barruti judizialeko zigor-arloko eremuari dagokionez, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoaren arabera.

Halaber, II. eranskinean jasotzen da borondatezko berrespen-proposamena egin zitzaien baina berretsi ez diren pertsonen zerrenda.

2. artikulua.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8RE8-S4N5
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS | 2026/10/16 12:03:39